**WEB orrialdeak euskaraz. C1**

| | |
|---|---|
| Nori zuzendua | Nafarroako administrazio publikoetako langileei, Hezkuntzako irakasleei izan ezik, eta, bereziki, administrari eta teknikari lanetan aritzen direnei. C1 maila izan behar da. |
| Helburuak | **Orokorra**:<br>Laguntza eskaini administrazioko webguneetan testu egokiak eta zuzenak sortzeko euskaraz.<br><br>**Zehatzak**:<br>• Webguneko osagai bakoitzaren ezaugarriak ezagutu eta landu.<br>• Webguneetako testuen diseinua, egokitasuna, komunikagarritasuna eta zuzentasuna landu.<br>Norberak bere atalean duen webgunea aztertu, eta beharrezkoa ikusten bada, osatzeko eta hobetzeko aholkuak eman eta saiakerak egin. |
| Edukiak | 1. Oinarrizko kontzeptuak: Testu arinak (laburragoak), argiak, ulergarriak, soilak, zehatzak, egokiak (erregistroa) eta zuzenak.<br>2. Ohiko agirien egitura eta diseinua.<br>3. Laneko hiztegia eta esapideak noiz eta nola erabili.<br>4. Zuzenketaren garrantzia eta interneteko baliabideak.<br>5. Oharrak eta mezu elektronikoak: kunplimentuak, orduak, datak, fraseologia, web-orria. |
| Metodologia | Azalpen teorikoak emanen badira ere, gehien bat praktikoa izanen da: Ikasleek aldez aurretik edota ikastaroaren hasieran lanean erabiltzen dituzten dokumentuak ekarriko dituzte klasera, horiek euskaraz nola eman landuko da, eta euskaraz baleude agiri horien egokitasuna aztertuko da. |
| Formatua | Aurrez aurrekoa izanen da, 18 ordu osotara, 3 orduko saioak 6 egunez. |
| Egutegia | maiatzaren 6an, 8an, 13an, 15ean, 20an eta 22an. |
| Ordutegia | 11:30.14:30 |
| Ziurtagiria | Bertaratze agiria, lanen %80a eginez gero |
| Tokia | J.M. Iribarren ikastetxea, Bartolomé de Carranza 5. |